+

Lyone, abenduaren 12a

Jaun apheza

Huna zonbeit lerro Herrian ezar-tzeko. Titulu gisa ezar ditake: Bozka biharamun, hiru eskualtzale Parisen.

Politikoenak ingoitik errangogo zituztenak erranak baitituzte, mintza giten orai eskualdunki: Hiru Eskualdun badituzu Parisen azkenik juan den hatek nahi zuen bezala. Ez zauzkiea nigar ttinta bat begira jin hiru ez zirela sotera ezarren esplikatu dau-kularik? Aise ageri zuen: etxen egon nahiago, bainan Eskualdunen, Eskual Herriaren eta Eskuararen onetan (eskuararik gabe ez baita ez Eskualdunik ez Eskual Herririk) hemitik urrun juan.

Ohartu ere gitazkete: orori igorri dituz-ten paper heiek buruan hiru eskuaraz ich-kiriatiak! Zonbeitek igorri dituzte ba hiruz-pa lan lerro gibelian, Eskual Herrian direnen

erdaldun bakarrentzat, boz sobera izaiteko esperantcharik ez baitzuten. Bayno izan da aurrunt eskualduna, erdaldunari hitz bat ere ez eman frantsesez! Lehen eskaldian pasatzia segurua baitzuen. Biba Mañech! Bestaldiko bultaren hobeki hartzeko aizina izanen duzu.

Zer erran zauzkuten paper horietan! Bichtan da Frantziari behar zen lekia eman dute. Bainan lehen lehenik Eskual Herriaz mintzatu: gure eskuara maitearen alde zer, nola, norekin egin nahi zuten garbiki eman. Juanden buruilan Mithikilen zuen gero! Ez zezazketen han aiphatu gauzak ahantz, oroz gainetik Eskualtzaleen Biltzarraren ondotik eskuararen alde jali "motion" hura!

Oraikotik gostian gira: hiru eskualtzale sarthu Parisen, besta parrasta bat galde eginen deegun bozen fite joaiteko prest; orai artio eskuara kenka gaichtoan bazen, aurrez aire jaliko dute.

A ufa Dokelar! Zer phestaunua behar dauzkukan muntatu Eskual Herriaren "defendatzaileen" horietan, az-kenik asmatu dukan chingola berria lehen aldikotz eman-nen dukalarik! Hire auzapezaren ondoan ezartzen ahal-ko dituk lerroan Camino, Errecart, Pirier, Garat, Etchandy eta klika guzia.

Bizkaixipi

BIZKAIXIPY

+

# BELTZAK eta ESKUALDUNAK

Duela hilabete bat, Frantziako ikastegietan diren beltzek agertarazten duten hilabetekari batian irakurtu dut artikulu bat ederra, mintzaïren gaïnetik. Algeria, Kamerun, Dahomey, Madagascar eta beste asko lekuetako haurrek, Eskual Herrikoen gisa bi mintzaïre badazkite: bat ttipitik ikasia, beren herrietan mintzatzen dutena eta herritik kampo herritarrekin*: beren mintzaïra, eskuara eskualdunentzat bezala. Bestia, seï zazpi ~~[illegible]~~ urthetan eskolarat joaiten direlarik (1), ordu arte deusik ez balakite bezala behar dute ikasi, zuk eta nik egin dugun bezala: frantsesa. Ez dakit zer erranen zuten frantsesek, 1940-an Alemanek manatu balute, heiek nagusi zirelako estakurian: "Hemendik goiti, haurrek, eskolak alemanez eginen dituzte. Ez da frantsesik aiphu ere izanen eskolako tenoretan."

Bi gaitz horien kontra du oihu egiten
artikulu harek: eskolak eskas eta dien
heiek ez behar bezalakoak. Ez ditake, beharrik,
Eskual Herrian eskolak eskas direla erran-.
Aldiz, Eskual Heriko haurek, Afrikako
beltzen gisa, zonbat denbora ez dute galtzen,×
eskolan, jadanik badakiten huna, zerbait
berrien ikasteko ez baliatuz! Gaitz hau
ezagutzen dute gure gobernamendu gizonek:
zonbait eskoletan ez ditake sar adin batetarik
goiti; beltzen dako adin hori gibelatu dute.
Gaitza ezagutuz geroz, zendako ez errotik jali,
phentsatuko duzu! Mediku batek ez du eri
bati zangoa errotik mozten egunerako baten
ezartzeko, mina sendatzen ahal badu! Arti-
kulu harek esplikatzen dauku gauza hori.
— "L'instruction publique, disait-on sous
Napoléon Ier, est une direction des esprits
par l'esprit". Il est certain que, jusqu'ici, on
ne conçoit pas un enseignement original
pour les pays d'outre mer; les mêmes règles
syntaxiques, la même ~~administration~~

admiration pour les mêmes grands hommes
étant garants de la même attitude d'esprit
en face des institutions républicaines. L'en-
seignement assimilationiste c'est la
conquête coloniale continuée par d'autres
moyens. —

Beltzek, beraz gaitz hori bazela orhar-
taraztia erreusitu dute, (heiek hori fite,
guk hoinbeste urthe hortan, ichil ichila
pairatzen ginuelarik!) Bestalde, oro alhort dira
beren mintzaire eta ohidurak begiratu behar
dituztela atzeko; zer, UNEF (2) -eko 46garren
biltzarre~~ko~~, chedetan beltzek bozkaarazi
dituzte hein ~~galde~~: beltzen ohidurak
begiratuak izan diten, heien mintzairiak
frantsesarekin ados eskoletan. Bicktan da
UNEF hortan, beltzak beizik ez baitire, gehiago
ere galde eginen ~~dituz~~tela — Frantziatik ez
dute beharbada gauza handirik jaliko.
Bainan geroa ta gehio bere-ber jartzen ari dira.
Beren etchen nagusi izanen direlarik, oro
alhort direnaz gain ez dutea nahi dutena
eginen nihun deusik hautsi gabe!

Zer lüitzanegurria emaiten daukuten guri eskualdunak! Beren mintzaire-ohidunen alde oro akort, ~~b~~ beltz izaitiaz, frantsesaz beste mintzaire baten jakitiaz ez ahalge, zonbait eskualdun, eskualdun goraz eta eskuara mintzatzeaz bezala! Aita-ama eta erriint, orok eskuara maite balute ez litakea eskoletan eskuara pochi bat ikas, legiak diotena e-maiten dauku bezala(3) (eta gehio ere?) Eskualdun guziek eskuara maite balute, ez litakeia Parisera igorri deputatugisa horiek ~~no~~ [illegible] nahi? Berrikitan, udaraiko artikulu batian, "Herriak" aiphatzen zaukun betroinaren alde eskualde hartako deputatiek egin uhats bat. Nun ziren Eskuara eta Basses-Pyrénées tako deputatak?

BIZKAIXIBY

---

(1) Juaiten direlarik: Senegal aldendian, 100 haurretarik 18, Niger aldendian 2,5 bakarrik; ez haurek eskolatu nahi ez dutelakoan ez; eskolarik eta erriintik ez delakoan.

(2) UNEF hori, frantziako ~~~~ ichtudianten sindikata da, beltz eta churi, ~~~~ oro nahas, beltz baino hamarretan gehio churi seirik, bichtan da.

(3) Astian ..........

Donibane-Garazi

KABALEN SALTZEAZ

Azken astelehen huntan Garaziko laborariek ukan dute GARAT-eneko salan bilkura bat zoinak suhieta baitzuen: "Kabalen saltzeko nola planta Koperatiba bat?". Barnea askitto betia zen, salbu oroitu behar da, denbora ederra izana gatik, gure alhorretako lanak baino presatiago zela hori, nahi ez badugu ondoko egunetan ikusi denborak biziki gaizkiago itzultzen gure ofizioaren zat!

Mintzatu dira MINJONNET, BERGOUGNAN eta IROUME jaunak. Horra laburzki gure buruzagiek ~~hitzak~~ guri eman erakaspenak!

– Zeren dako laborarien arteko Koperatiba edo batasun hori? ~~gure Kabalen saltzeko~~

– Ohartzen gira, eta maluroski guhau erdiz-erdi harrapatiak, kursak zenbat aphal diren eta ez dugula ~~nihondik~~ deus ateratzen ahal gure Kabalak hola saldus! Greba bat egin dugu eta zer ekarri dauku?: bucherren greba bat lehen merkatiam berian! Kabalak, edo chuchenago erteko* aratcheak, hartiak izan ziren Garaziko Koperatibaren gatik, despeituak izaiteko Bordelera eta Mont-de-Marsan-era: horra hor ukaldi bat segur merechimenduez betea. Itzuli hori Iroume* eta Bergougnan jauner esker egina izan zen* eta bihotzetik zor diotegu gure kustateak!

Ez gira beha egoiten ahal gobernamenduak zerbait egin dezan guretako, ez dauku fagorerik eginen. Bazterretan ez da berri tcharrik baizik, orduan zer manera atchik: lot eta entsega Koperatiba bat Kabalen arrazoinean saltzeko.

Ilhe Koperatiba bat bezala kurrituko da Kabalen Koperatiba hori ere. Kabalak emanak izanen dira Koperatibari zoinak errezeit bat emanen baitu. Ondoko egunetan saltzapena hunkiko du laborariak: haragiaren eta bertze huchken prezioa salbu transportak ekarri gastuak.

+

Marseillaisaren gaiñetik.

Hemengo Kasetetan ene lagunek erakutsiak gauzkaten
jadanik, berrikitan eskualdun soldadoz gaiez Kondatu
dituzten pettolikeriak. Bainan zendako tcharditu
"Herria"-k ere aiphatu? Gure Kasetak ~~te~~ hein hortako
haurkeriak phentsatzen balitu noizbait frantchimentak
zikindu nahiz (Badakit ez dela ~~gu~~ biharko jainkoari
esker, bere hegal choko guziak bethetzen baititu holako-
tchardakitzia
nik gabe!) uste duzia frantses Kaseta serioseri baliako
ere zela? "Herria"-ren dako ere ichiltzia hobeizanen
zitakeen. Heieri Kasu egiten duzula ez ahal zee
guti eder iduritzeko ~~egaul~~ gaicho horiena! Uztailaren
14an Parisera badoan Laphurditar arrazoplezari
erakozu ere phartez ~~ezdezan~~. De Gaullen aitzinian
ez dezan "Marseillais"-a Kanta bainan ba "Gernikako
Arbola". frantchimentguziek jakin dezaten, heietarik
zombeitek "13-mai" bat tcharbadute heren Kantiaren
ezagutzeko, aantchu hilabete batez ezunguzia irra-
tian entzunez ~~adun~~, Eskualdunek, guria, ttipitik
ezagutzen dugula, ~~?~~ ez bakharrik lehen Kobla bainan
oro osoa. Burrunatzian galde gero bat, nagian suphes-
tachokhman eta urdan itsaso bazterrian, heren ~~B~~ herria-
ren aldeko gauzetaz hain minbera dien jaunttoreri?
lan uthe hootan heren odola Frantziarentzat ichuri
duten Eskualdunek "Marseillais"-a ezagutzen othe zuten?
BIZKAYXIPY